


Paper lehorra

Manten al daiteke papera lehor uretan?

Materialak

- Iturriko ura
- Plastikozko ontzi bat
- Papera
- Plastikozko edalontzi bat



Zer egin

1. Bete plastikozko ontzia, hiru laurden inguru, iturriko urez.
2. Zimurtu orria, eta jarri estu-estu plastikozko edalontziaren hondoan. Erabili behar adina paper, eror ez dadin edalontziari buelta emandakoan.
3. Eman buelta edalontziari, eta sartu uretan. Eutsi edalontziari zuzen, inoiz ez okertuta.
4. Atera edalontzia zuzen uretatik, eta atera papera. Zer gertatu zaio paperari?

Zer gertatzen da?

Orria ez da busti. Aireak inguratzen du papera edalontzian. Edalontzia uretan sartzean, airea harrapatuta geratu da edalontzian. Aire harrapatuak urari bultza egiten dio, eta paperera iristea eragotzi. Edalontzia okertuz gero, aireak ihes egiten du, eta urak hartzen du haren lekua. Kasu horretan, orria busti egiten da.

